

Bizirik nahi gara

Saioa Iraola

rainak, oztopoak, ikusezintasuna, isiltasunak, erasoak, heriotzak. Badauzkagu atzoko egunak memorian (Occhi di Farfalla taldearen abesti zatiaren moldaketa).

Heteropatriarkatuaren atzaparretatik ihesi kokatzen garen gorputzok jo puntuan egon gara eta gaude izan lesbiana, trans, gay... Baina, igandean, LGTB kolektiboko kideak batzen ziren Orlandoko (Florida, AEB) Pulse lokalean 50 lagun hil eta 53 lagun zauritu izanak, este lodi, mehe zein sabela kolpatu dizkit, beste askori moduan. Tristura, beldurra eta amorrua sentitu ditut nire buru-gorputzean.

“Homofobia” hitza agintari, sare sozial letako albiste eta komunikabide askoren testuetan irakurri ahal izan dut, beste hainbatetan ez bezala. Eta atentzio deitu

dit, gay izendapenaren erabilera soilak. Baina soropilak (bollerak) ere bazeuden, bageunden.

Eta albisteen irakurketan jarraituz, irakurri dut ere: Mexikon Veracruzen maiztzean izandako beste eraso baten ondorioz, giroko taberna batean zazpi hildako eta hamabi zauritu izan zirela, horiek, aldiz, ez dute nazioarteko oihartzunik izan. Sexu identitatearen aldagaiak gain, nazio, etnia, edota klase sozialak zapalkuntzen elkarreaginean baldintzatzen digun adierazle.

Eta erasotzaileak? Orlandokoak, jatorri afganiarra zuela letra larriz azpimarratu dute komunikabide hegemonikoek, noski, berriro ere “erasotzailea kanpokoak” den tesia zabalduz. “-fobiak” sustraietan errotuak dituen jendartean bizi gara, non

gerra letra larriz idazten ez den eta, meteoritoen gisa, aldizkako gerra-uneak bizi direla ematen duen. Bizitza bera desbalorizatua dago osoki, eta gorrotoz betetako bizitzak garatzen doaz.

Mendebaldean “otso bakartiaren” izendapenez lausotu nahi dituzte, gaizkiaren erantzule bakartzat Estatu Islamikoa seinalatuz eta islamofobia indartuz. Baina, zalantzarik ez da enpatia eza, aniztasunaren aurkako jarrerak eta erresistentziak nagusitzen doazela, sexu aniztasunaren eta feminismoaren aldeko borrokan pausak ematen goazen heinean.

Baina bizirik nahi garelako, 1968. urtean Stonewallen izan ginen moduan aurtengo ekainaren 28an ez ezik, egunerokoa ere izango gara eta jarraituko dugu borrokan. •

Bidasoa eta Ebro

Joxean Agirre

Auzoan bizi den Mendi margolaria-ri urte bat edo bi faltako zaizkio 90 egiteko eta irudipena dut bista jaitsi ahala etorkizuna ikusteko dohaina zorrotzen ari zaiola. Goizero bi bastoiekin sendagileak agindutako hiru kilometroak egitera ateratzen da eta topo egiten duenari bere gogoeta filosofiko edo politikoen berri ematen dio.

Goiz batean aurtengo ikasturte politikoan eman den gertakaririk esanguratsuen Nafarroa Akitania-Euskadi euroeskualdean sartzea izan dela esan zidan, etorkizunean Akitaniarekin batera Europako eskualde indartsu bat osatuko dugulako, bi muturretan hiri industrial bana (Bilbo eta Bordele), bakoitza bere portuarekin merkantziak esportatzeko; bien artean Biarritz eta Donostia, mundu osotik turistak erakartzeko, eskualdeko gastronomia eta mundu mailako fama duten Arabako Errioxako eta Bordeleko ardoak eta... ja-

rraitu genuen futurismoa egiten, Euskal Herri independente baten bideragarritasuna ekarriko lukeen Benelux berri horren indarguneak zerrendatzen.

Egunotan kontrol ikusgarriak jarri badiutze ere, Bidasoako muga mehartzen ari da. Herri Urratseko ekitaldi ofizialean urtero euroeskualde horretako ordezkariak bildu ohi dira. Euskal Eskola Publikoaren festan Max Brisson eta Arnaldo Otegi ikusi genituen hizketan. Ipar Euskal Herriko Elkargoak loturak estutzeko aukerak ekarriko ditu. Ideiak ere aise igarotzen dira alde batetik bestera.

Horren lekuko da Nuit Debut eta Gipuzkoa Zutik mugimenduen kasua. Eduki aldetik dituzten diferentziak gorabehera (lan erreforma eta erraustegia), biak dira mugimendu horizontalak, buruzagirik eta bozeramailerik gabeak, sistemarekiko ezkorrak, diskriminazio guztien kontrakoak, nolabait esateko postmarxistak.

Bidasoako muga ezabatzen ari da. Mugen inguruan eta gure izaera europarrari buruz entzun dudana gauzarik bitxia, dena den, joan den larunbatean entzun nuen Lapuebla de Labarcako upategi baten atarian, Fuenmayortik Logroño aldera zabaltzen ziren mahastiei begira, upategiko jabeak gogoratu baitzuen orain milioi batzuk urte bi kontinente elkartu zirela hor, orain Ebrok markatzen duen lerroan, Logroño aldeko lurak Afrikaren jarraipena zirela eta Arabako Errioxakoak Europa-reenak.

Ordurako laugarren ardoa probatzen ari ginen eta etxera etorri eta badaezpada Interneten begiratu nuen, eta Felix Perez Lorente geologoak ere antzeko teoria bat ematen duela ikusi nuen. Upategiko jabearen ondorioa garbia zen: bi aldetako lurak oso ezberdinak dira eta ardoak, zer esanik ez. Arabakoak, noski, askoz ere hobek. •